



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ESP.	2011IPLE0004
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	EZOHIKO OSOKO BILKURA

2011-04-26ko EZOHIKO UDALBATZA

Beizaman, 2011ko apirilaren 26an, arratsaldeko 09:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Alkatea Ramón Gerrikagoitia Bengoetxea jauna buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Igone Arruti Olazabal andrea eta Luis Javier Oregi Iñurrieta zinegotzia.

Ez dira bertaratu Begoña Garmendia Vazquez andrea, Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Udaleko idazkari kontu-hartzailea, Lierni Muñoz Salaverria haritu da idazkari moduan.

AZTERGAIAK

- 1.- GAIA: Aurreko akta
- 2.- GAIA: Udal hauteskunde mahaikide zozketa
- 3.- GAIA: 2010eko udal erroldaren onarpena
- 4.- GAIA: Foru Aldundiaren garraio proiektuaren idatzia berrestea
- 5.- GAIA: Gurutzegiko hiritartze proiektuaren aldaketa inguruko hitzarmen urbanistikoa
- 6.- GAIA: Gurutzegi II sektorearen inguruko hitzarmen urbanistikoa
- 7.- GAIA: 1/2011kreditu aldaketa. Habilitazioa
- 8.- GAIA: Gaztainondoko putzuaren erabailera besterentze espedientea.
- 9.- GAIA: Hilerri ondoko lurren erosketa espedientea hitzarmena.
- 10.- GAIA: Informazio galdera eta erreguak

Beraz hartu beharreko erabakien azterketari ekiten zaio.

1.- AZKEN PLENOKO AKTAREN ONARPENA.

2011/03/25ko akta aho batez onartu da.

2.- UDAL HAUTESKUNDE MAHAIKIDE ZOZKETA

Goizeko 09:46ak direnean udal eta foru hauteskundeetarako mahaikideen zozketa burutu da. Zozketaren emaitzaren akta sinatu da eta Hauteskunde batzordera bidali da, jakinarazpenak egitea aginduz.

3.- 2010EKO UDAL ERROLDAREN ONARPENA

Osoko bilkurak aho batez berretsi du 2010eko abenduaren 31ko udal errolda 182 biztanletakoa dela onartzea, eta INEri erabaki honen berri ematea.

4.- FORU ALDUNDIAREN GARRAIO PROIEKTUAREN IDATZIA BERRESTEA



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Osoko bilkurak, aho batez berretsi zuen alkateak Foru Aldundira bidalita idatzia, garraio proiektuaren inguruan, honakoa jasotzen delarik.

- Adostasuna adieraztea Foru Aldundiak proposaturiko emakidaren edukari.
- Udal honek bere kezka aurkeztu nahi due emakida proposamenean ez baita jasotzen Beizama-Azpeitia 08:30 eta Azpeitia-Beizama 17:00 zerbitzua. Idatzi honen bitartez eskatzen zaio Foru Aldundiari ahalik eta lehen lotu dezan ordutegi honetako zerbitzua, eskola ordutegira zuzenen loturik dagoena baita, nahiz eta udalaren borondatea izan zerbitzu hori herritar guztiei irekia izatea.

5.- GURUTZEGIKO HIRITARTZE PROIEKTUAREN ALDAKETA INGURUKO HITZARMEN URBANISTIKOA

Osoko bilkurak aho batez hasierako onarpena eman zion Gurutzegiko hiritartze proiektuaren aldaketa inguruko hitzarmen urbanistikoari, Gao-n 20 eguneko epez jende aurrean egotearen erabakiarekin batera.

Honako edukiarekin:

LEHENA.- Beizamako udalak, Gurutzegiko Hiri Antolaketako urbanizazio Proiektua izapidetu eta onartzeko konpromezua hartzen du.

BIGARRENA.- Aipatu proiektuaren aldaketa izapidetu eta onartu ondoren, Beizamako udalak bere zerbitzu teknikoari eskatuko dio dagokion txostena, egindako lanak proiektuari egokitzen zaizkiola egiazta dezan.

HIRUGARRENA.- Hiritartze lanak egokiak direla egiaztatu ondoren, Beizamako udalak haien jarrera gauzatu du, dagokion egintza formala.

LAUGARRENA.- Gurutzegi sektoreko lurren jabe direnak, bere gain hartuko dute sektorearen urbanizazio publikoaren mantenua hitzarmen hau sinatzen den unetik, 25 urtetan zehar.

BOSTGARRENA.- Gurutzegi sektoreko jabeek kontserbazio entitate urbanistiko bat eratuko dute, urbanizazio publikoko eremua, instalazioak eta elementuak mentendu eta kontserbatu ahal izateko.

6.- GURUTZEGI II SEKTOREAREN INGURUKO HITZARMEN URBANISTIKOA

Osoko bilkurak aho batez hasierako onarpena eman zion Gurutzegi II sektoreko hitzarmen urbanistikoari, Gao-n 20 eguneko epez jende aurrean egotearen erabakiarekin batera.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Honako edukiarekin:

LEHENA.- Beizamako udalak Hiri Antolamenturako arau subsidiarioen aldaketa espedientea sustatzeko konpromezua hartzen du hitzarmen honek behin betiko izaera hartu eta 9 hilabeteko apean, horretarako beharrezko diren dokumentuak prestatuaz.

BIGARRENA.- Aldaketak honelako ezaugarriak izango ditu:

ÁMBITO 1. GURUTZEGI II (Urbanizable Sectorizado)

Sector 1. Ámbito de ordenación remitida –OR GURUTZEGI–

A) Ámbito y objetivos.

SUPERFICIE: 2.630,00 m²

CLASIFICACIÓN y CATEGORIZACIÓN: Suelo Urbanizable Sectorizado.

CALIFICACIÓN GLOBAL:

Industrial-Productivo.

USO CARACTERÍSTICO: Industrial (uso 7 en cualquiera de sus tipos)

EDIFICABILIDAD URBANÍSTICA: La regulada en la ficha urbanística.

A) Determinaciones para el desarrollo urbanístico del sector GURUTZEGI II.

Ordenación urbanística:

Superficie máxima a ocupar por Parcelas Industriales (40% de 2.630,00 m²): 1.052,00 m² Este aprovechamiento urbanístico, será susceptible de materializarse dentro de la zona industrial no edificable del sector Gurutzegi I

Superficie Máxima Construida Total (40,00% de 2.630,00 m²): 1.052,00 m²

Edificabilidad máxima: 0,4 m²/m² sobre parcela privada NUEVA aportada al polígono.

Altura máxima: La altura máxima de la rasante exterior al nivel inferior de la estructura de cubierta, será de 10 m.

Perfil edificatorio máximo:

En áreas productivas - PB+Entreplanta.

En áreas de oficinas - PB+ 1.

Entreplantas: En áreas productivas, se admitirán entreplantas, con una altura libre mínima de 2,50 m. y una ocupación máxima en planta del 30% del local al que dan servicio.

Dotaciones y Servicios Mínimos:

— Espacios Libres de dominio y uso público (10%) 263 m²

— Aparcamientos: Una plaza como mínimo por cada 100 m² de edificación.



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA.- Udala espedientearen tramitazioa bultzatuko du, udalak dokumentazioa jasotzen duen unetik aurrera, udalari egotzi daitekeen etenik emango ez delarik.

LAUGARRENA.- Beizamako arau subsidiarioen aldaketa puntual honen kostua Illaun Barnizaketa S.L.k bere gain hartuko du, gutxi gora beherako aurrekontua 17750 eurotakoa izango delarik (BEZa kanpo). Espedientea ez delarik abian jarrito udalean aipatu kopuruaren depositua gauzatu arte.

BOSTGARRENA.- Illaun Barnizaketak S.L.k, behin arau orokorraren aldaketa burutzen denean, ondorengo dokumentuan aurkeztu beharko ditu udalean: Plan Partzialaren aldaketa, PAUa, Hiritartze proiektua eta Birpartzelazio proiektua, 2/2006 Lurzoruaren legeak ezartzen dituen epeetan.

SEIGARRENA.- Arau Subsidiarioen aldaketa behin betikoz onartzeko almena duen administrazio Gipuzkoako Foru Aldundia dela bi alderdiek onartzen dute. Beraz, foru organoak hartutako ebazpenarengatik edo aldaketaren izapidetzean zehar eskuduntza duen beste administrazio batek emandako erabakiarengatik hitzarmen honetan xedatutiko ekimena bideraezina bihurtuko balitz, bi alderdiek uko eginten diote edozein erreklamazioa elkarri egiteari.

7.- 1/2011 KREDITU ALDAKETA. HABILITAZIOA

Zinegotziek aho batez onartu dute 1/2011 kreditu aldaketa. Habilitazioari dagokiona. Honen arabera 2010eko kreditu gerakina, 5000 eurokoa dena, 2011ko aurrekontura gehitzen da kreditu global moduan, ondoren alkateak bere eskumenen arabera erabaki dezan kopuru horren erabilera jakina.

Era berean Gao-n argitaratzea erabaki da, 15 eguneko epez, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

8.- GAIA: GAZTAINONDOKO PUTZUAREN ERABAILERA BESTERENTZE ESPEDIENTEA.

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki zuen:

- Gaztaiondoko putzuaren erabilera eskubidea Francisco Labaka Iraola zenaren oinordekoen alde onartzea, beti ere oinordetza eskubidea egiaztatuz gero.

- Arkitektuaren txostenaren arabera 1000 eurotan baloratzea eskubide horren besterantzea.

-Alkatea baimentzea dagokion eskubide bereganatze dokumentua sinatzeko.

9.- GAIA: HILERRI ONDOKO LURREN EROSKETA ESPEDIENTEA HITZARMENA.



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du.

- Udal hilerriaren ondoan dagoen 100m² ko partzela Manuel Otaegui Chaparteguiaren izenean dagoena erostea.
- Udal arkitektoak eginiko balorazio ekonomikoa berrestea, zeinaren arabera lur sailak 2000 euroko balioa duen.
- Alkatea baimentzea dagozkion dokumentuak sinatzera.

10.- GAIA: INFORMAZIO GALDERA ETA ERREGUAK

Ez da aipamen berezirik izan eta Osoko bilkura, 10:30etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Beizaman, 2011ko maiatzaren 18an

Lierni Muñoa Salaverria
Idazkari Kontu-hartzailea